

JUAN DE LA CIERVA 2017 DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA: "Formación" modalitatea

Diru laguntzen ezaugarriak:

MINECOk 225 laguntza banatzeko deialdia egin du doktore gazteen kontratazioa doktorego aurreko prestakuntza jasotzeko erabili ez ziren Espainiako I+G **beste zentro batzuetan** bultzatzeko. Lau plaza gordetzen dira %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuek bi urteko iraupena izango dute, gehienez. UPV/EHUn hasiko diren onuradunek 21.500 euro gordin jasoko dituzte urtean.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Eskatu behar da doktorego aurreko prestakuntza jasotzeko erabilitako zentroa ez den **beste I+G zentro batean** hasteko. Helburu horri begira, bereizi egin behar dira doktore titulua ematen duen ikastegia (unibertsitatea) eta doktore titulua lortzeko gaitasun eta trebetasunez jabetzera bideratutako ikerketa jardueren multzoa garatu denekoa.

GARRANTZITSUA: 42.1.a y 45.1.f artikuluek ezarritakoa betez, UPV/EHUK ez du mugikortasuna justifikatzeko memoriarik egingo.

- b. Sarbide orokorrean parte hartzeko, erakutsi beharko da doktore titulua 2016/01/01etik 2017/12/31ra bitartean erdietsi dela. Kontuan hartuko da lehen tesiaren defentsa ekitaldiaren eta onarpenaren data. 42.1.b artikuluan kontsulta daiteke epe hori betetzeko dauden salbuespenen taula.
- c. Desgaitasuna duten pertsonen txandarako, erakutsi beharko da doktore titulua 2015/01/01etik 2017/12/31ra bitartean lortu dela. 42.1.b. artikuluan kontsulta daiteke epe hori betetzeko dauden salbuespenen taula.
- d. Eskaerarik aurkeztu ez izana 2017ko "Ramón y Cajal" eta "Juan de la Cierva-Incorporación" deialdietan.
- e. Lehenago Juan de la Cierva laguntza bat jaso ez izana, kontuan hartu gabe ikertzailea I+G zentroan hasi den ala ez.

UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:

Tutoreek egiaztatu beharko dute UPV/EHUREKIKO lotura funtzional edo kontratu bidezkoa dutela eskaera aurkeztu den unetik eta laguntzak iraunen dituen bi urteetan.

GARRANTZITSUA:
IAEK ez du balidatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

Eskaerak aurkezteko epea hautagaientzat:

2018ko abenduaren 21etik urtarrilaren 11ko 15:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Hautagaiak berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balidatzeko, **2018ko urtarrilaren 18 arte**, hain zuzen ere.

Hautagaiak aurkeztu beharreko eskaera:

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren (aurrerantzean MINECO) webgunean kontsulta daitezke **ohiko galderak**.

UPV/EHUko TRAMITEA:

UPV/EHUUn adskribatu gura duten hautagaiak dokumentazio hau igorri beharko dute 2018ko urtarrilaren 11 arte (hori ere barne) convocatorias.dgi@ehu.eus helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVa](#)
- c. NANaren fotokopia
- d. Doktore tituluaren fotokopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daitekeen eredu.
- f. [Tutorearen CVa](#)

IAEk **ez** ditu balidatuko epetik kanpo igorritako dokumentuak.

GARRANTZITSUA:

Bestalde, eskaera egiteko formularioa jatorrizko sinadurarekin bidali beharko dute **PAPER EUSKARRIAN** posta zertifikatuaren bidez edo barruko postaz helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa, z/g
48.940 Leioa (Bizkaia)

MINECOko kontaktua:

Eskatzaileek MINECOri egin ahalko dizkiote kontsulta administratiboak zein informatikoak formulario honen bidez:

http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/consulta_ayudas

UPV/EHUko kontaktua:

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoaren bidez bidaliko dira convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva-Formación" adierazita.

Informazio gehiago:
[Esteka](#)